

Artisau agurgarriak

ESKUTARTIE aurkezten dizuegu Bilboko Udaberriko Artisau Azoka
Azoka famatu honek 12 urte betetzen ditu, eta apirilaren 06etik 16ra egingo da Bilbon.

Lekua: Areatzako pasealekua - Bilbao
Ordutegia: 11:00etik 14:30era. 16:30etik 20:30era.

Informazio orokorra, zein parte hartzeko inprimakiak, ESKUTARTIE web-ean aurki ditzazkezu, helbide honetan:
<http://www.eskutartie.biz>

Interesdunek ESKABIDE-ORRIA bidali beharko dute, bertan agertzen diren datu guztiak argi eta garbi betez, eta eskatzen den dokumentazio gehigarria erantsiz, helbide honetara:

E-mail: artisautza@arbaso.com

Arreta-ordutegia argitaratzen dut: 9:00etik 13:00era (Tel.: **656 725 538**)

Izena emateko azken eguna otsailaren 05a izango da

Jakinarazpen hau apirilaren 04ko 44/2023 Foru Dekretua betez bidaltzen dizuegu.

Parte-hartze arau orokorrak

- Ezinbesteko baldintza izango da erakusten edo saltzen diren artikuluko guztien egilea eta ekoizlea izatea. Erakus-toki bakoitzak bere fabrikazioko salgaiak bakarrik aurkeztu ahal izango ditu. Ez da onartuko parte hartzen duen artisauak egin ez duen produkturik, ez eta esleitutako epigrafean jaso ez den produkturik ere. Ezingo da inolako stand-ik ezarri identifikatu ez duen edo erakundeari aldeztu aurretik jakinarazi ez zaion pertsona bati
- Documentazioa
 - Eskaera-orria ondo beteta; era telematikoan egin daiteke ondoko helbideetatik
<http://www.eskutartie.biz>
 - Dagokion eskualdeko eskulangile-eroldan izena emanda egotearen egiaztatari **eguneratua** erantsi beharko zaio eskabide-orriari edo artisau txartela.
 - Produktu kosmetikoak fabrikatzeko eta/edo inportatzeko jardueren erantzukizunpeko adierazpena (kosmetika gremioarentzat)
 - Osasen Erregistro-errola, manipulazai-txartel. (Elikadura sektorea)
 - Autonomoetako azken 3 ordainagirien fotokopia. (Halakorik ezean, Gizarte Segurantzaren edo bitzita lobbarean egunean egotearen ziurtagiria)
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen ziurtagiri eguneratua, dagokion artisautzari edo elikadurari buruzko epigrafe batean.
 - Konpromiso eta pribatutasun eskutitza sinatutako.
 - Poliza eta erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiria.
 - Kurrikulum profesional labur bat.
 - Aurkeztu beharreko produktuen zerrenda, prezioak. **Ezingo da saldu aurkeztutako zerrendan ez dagoen produkturik.**
 - Erabilitako teknikak eta lehengaiak.

- 5 Kalitatezko argazkiak, horietako bat stand muntatukoa, azokan erakutsi edo saldu nahi dituen produktuekin. (.jpg edo .TIF formatu digitalean 300 pixel/hazbete)
 *(EZ dira argazkien fotokopiarik onartuko.)
 * **Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.**

3. Dokumentazio guztia posta elektronikoz bidali behar da.
4. Erakusketariei ahalik eta lasterren jakinaraziko zaie formalki Batzorde Antolatzailearen ebazpena.
 - Parte hartzaile bakoitzari dagokion lekunea ezin izango da aldatu ezta gainditu ere, antolatzaileen idatzizko baimena izan ezean.
 - Onartutako tailerrak Eskutartiaren web gunean jarriko ditugu.
 - Antolatzaileek erreserbatuta utzi ditzakete zenbait eskaera eta aztertu egingo luke horien parte hartzea, onartutako erakusketarietatik baten batek araudia edo standa ordaintzeko epea beteko ez balitz.
5. Orri informatiboak direnez, orri hauek jasotzeak ez du azokan parte harteko eskubiderik ematen. Etortzeko baliodun titulu bakarra ONARPEN E-MAIL izango da, aukeratutako artisauei soilik emango zaiena.
6. Azokan parte hartzeko gremio bateko eskari larregi badago, eta beste gremio batzuetan lekua soberan, antolatzaileek gremio hartako artisauen parte hartzea % 20ra mugatuko dute.
7. Bitxigintza edo bisuteriakoak ez diren standek, bisuterian, gehienez, % 20 izan ahaliko dute erakusgai.
8. Azokara sartzeko e-maila jaso eta egun gutxira, 500 € ordaindu beharko dira lehen fidantza gisa, azokan standa erreserbatuko dela ziurtatzeko. Antolatzaileek azoka eteten badute bakarrik itzuliko da fidantza hori.
9. Parte hartzen duten enpresei honakoak baloratuko zaizkie
 - Azokan parte hartuko duten artisau-enpresetako % 50a Bizkaikoak izatea
 - Enpresa eskatzailea Arbasoko bazkide izatea
 - Produktuen kalitatea eta erakusteko duten itxura.
 - Standean, jendaurrean, titularra bera egotea. (Horrela ez bada, derrigorra da eskarian jakinaraztea).
 - Azoka orduetan, nor bere lanbidearen lanak egitea.
 - Aurreko edizioetako parte hartzea ebaluatzea.
10. Foku gehigarriak ipini behar badira, kontsumo txikikoak izan beharko dira, eta aldez aurretik eskatu behar zaizkie antolatzaileei, muntaiaren eskema eta kontsumoa zehaztuta. Araututa dagoen legez, ezin dira erabili berotzen diren bonbillak. Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
11. Oinarriotan ageri ez den edozein gertakizunen aurrean, Azoka Antolatzaileak, Azokaren burutze onerako egokiagoa deritzona erabakiko du.
12. Azokaren antolatzaileak ez dira Azoka egiten den aldian gerta daitezkeen lapurreta eta galereen kargu egingo.
13. **Irudi egokia eta profesionala helarazteko, parte-hartzaileei gomendatzen zaie ordena eta txukuntasuna mantentzea esparruaren barruan.**
14. Antolakuntzaren esku egongo da:
 - **Produktu horren fakturan artisau-lana nagusi ez dela uste duen erakundeari aurkeztutako zerrendan agertzen diren produktuak ukatzea.**
 - Artisauen bat azokan ez onartzea, baldin eta baldintza administratiboak edo kalitatezkoak betetzen ez baditu.
 - Jarraipen bisita egingo zaie onartutako tailer guztiei eta parte hartzeko eskaria egin dutenei.
 - Ez dira tramitatuko guztiz bete barik dauden eskaerak.
 - Antolakuntzak, stand batean irregulartasunik aurkituz gero, besterik gabe azokatik kanpo hutziko du artisaua. Horrela gertatuz gero kalte ordainak jasotzeko eskubidea galduko luke.
15. Bilboko Udalak standa eskatu duen artisauari dagokion Gizarte Segurantzako martxoako ordainagiria eskatu digu; edo bestela, standean dagoen pertsonaren kontratua, jendaurrean dagoena bera ez bada. Beraz, aipatutako dokumentazioa derrigor entregatu behar da apirilaren lehen astean.
16. Udalak ere egin ditzake ikuskapenak azokan, standa artatzen ari diren pertsonen Gizarte Segurantzaren alta ematen zaiela egiaztatzeko. Erakusketari guztiek izango dute beren jardura ekonomikoaren ardura, ekitaldian zehar egin daitezkeen edozein ikuskapenen aurrean.
17. Artisauak stand-a oinarrietan ezarritako epearen barruan betetzen ez badu honen erabilera antolatzaileen esku geratuko da. Kasu honetan artisauak inongo indemnitazio edo ordainketa jasotzeko eskubiderik ez du izango. Honetaz gain, bere ustetan arduetan huts egiten duen artisauak, irekitzeko/izteko ordutegiak, garbitasun arauak ez errespetatzea edota beste edozein arauren huts egitea dela eta), Azoka honetako ondorengo edizioetatik kanpo uztea antolatzaileen esku geratuko da.

Standen ezaugarriak

- Stand modulsrrak: aurrealdea 3 metrokoak, sakonera 2 metrokoa eta altuera 2,80 metrokoa. motordun oertsianaren bidezitekkoa.
- Serieko argiztapena: kontsumo txikikoak foku LED , 5 W m2 bakoitzeko eta 800 W-ko muga-gailudun entxufea.
- Standetako hormetan gauzak eskegitzeko sistema: barra paraleloak jartzen dira horman, bertan, oihalak edo beste-lako gauzak eskegitzeko, tresna diskretuak erabilia.

Prezioak

| | Bizkaiko artisauak | Bazkideak bizkaiatik kanpo | Besteak |
|----------------|--------------------|----------------------------|---------|
| Stand - 3*2 m. | 850 | 900 | 1.090 |

Standak apaintzeko lehiaketa

Eskutartie dela eta, Erakusketen Katalogo birtuala egingo du erakundeak. Bertan argitaratuko diren datuak izena emateko fitxatik aterako ditugu, beraz, ez da izango gure erantzukizuna akatsik edo hutsik badago.

Antolatzailea
Organizadon



Babesle Nagusia
Patrocinador



Laguntzaile
Colaborador

